

**KOLDO MITXELENA KATEDRAREN III. BILTZARRA  
III CONGRESO DE LA CÁTEDRA LUIS MICHELENA  
3<sup>rd</sup> CONFERENCE OF THE LUIS MICHELENA CHAIR**



Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui,  
Joseba A. Lakarra & Céline Mounole  
(arg./eds.)



2013  
Vitoria-Gasteiz

*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cátedra Luis Michelena. Congreso (3.<sup>º</sup> 2012.Vitoria-Gasteiz)**

Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra = III Congreso de la Cátedra Luis Michelena = 3rd Conference of the Luis Michelena Chair / Ricardo Gómez ... [et al.] (eds. = arg.). – Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2013. – XXII, 770 p. : il., map. ; 24 cm. – (Publicaciones de la Cátedra “Luis Michelena” = “Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak ; 5)

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-1849-2013. – ISBN: 978-84-9860-911-0

1. Euskara (Lengua) – Congresos. 2. Michelena, Luis, 1915-1987. I. Gómez, Ricardo, ed. lit.

811.361(063)

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da /

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación /

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC, IT698-13),
- “Monumenta Linguae Vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo” (Espainiako MINECO, FFI2012-37696),
- “Onomástica aquitana e ibérica: datos y evaluación lingüística” (Espainiako MINECO, FFI2012-36069-C03-01),
- “Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropeo-trak eta Euskara” (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system, or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording, or otherwise, without the prior permission of the University of the Basque Country Press.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berori tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarra, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

© Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg./eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-911-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 1.849-2013

# (Des)genitibizazioaren historiaz gehiago: genitibozko subjektu iragangaitzak (ISGEN) ekialdeko euskaran\*

Manuel Padilla Moyano  
UPV/EHU-IKER UMR 5478

Languages can also be said to have “ergative syntax”; i.e., some rules of coordination and/or subordination will treat O and S in the same way, and A rather differently (Dixon 1979: 62).

## 1. Sarrera

Artikulu honetan ikuspegi berri batetik aztertuko dugu euskararen genitibizazioa, orain arte genekiena bilduz eta ezezagun egon den beste genitibizazio molde bati lotuz. Hizkuntzalari gehienentzat euskarak morfologia ergatiboa bezain sintaxi akusatiboa erakusten du (Oyharçabal 1992, Trask 2002). Maila sintaktikoan, beraz, euskararen lerratze eredu nominatibo/akusatiboa da, subjektu iragankorrik (A) nahiz iragangaitzak (S) berdin tratatzet bai-titu, eta objektu zuzenak (O) era diferentean. Eredu hau proposatzean, honako elementu sintaktikoak aipatu izan dira: kontrola, agintera, izenordain elkarkariak, objektuaren genitibizazioa, juntadura, koordinazioa eta erlatibizazioa (Albizu 2011). Ez da gure xedea eztabaidea tipologikorik piztea,<sup>1</sup> baina

---

\* Lan honek Eusko Jaurlaritzaren sostengua izan du (BFI-2010-18), eta ondoko ikerkuntza proiektuetan kokatzen da: “Monumenta Linguae Vasconum III-IV: historia, crítica y edición de textos vascos” [= FFI 2008-04516, FFI 2012-37696], “Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada” [erref. GIC 10/83, IT 486-10] eta “Hizkuntzalaritz Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara” (UFI 11/14). Nire esker ona bihurtzen diet Beñat Oyharçabali eta Blanca Urgelli, egin dizkiten iruzkin baliotsuengatik, bai eta beti eman didaten laguntza eta kuraiagatik. Eskerrak, halaber, Denis Creisselsi eta Joseba A. Lakarrari, lan honi egin dizkioten oharrengatik.

<sup>1</sup> Ergatibotasuna zertan datzan ere ez bide da Dixonek definitu zuen bezain argi. *Ergatibo* konsideratzen ohi diren hizkuntza gehienek ez dute eredu komunik erakusten. Izan ere, *ergatibo* etiketaren arrakasta handia ezaugarriztatzegatiboa baten ondorioa dateke: gehiago litzateke nominatibo/akusatiboa lerratze sistema argia dutenen hizkuntzetarik bereizteko. Bihoa aipu hau: “Dixon’s formulation of S, A and O, the ‘universal syntactic-semantic primitives’, is based directly on the myth of ergativity as one of just two basic ‘alignments’. This way of think-

bai, ordea, iraganean gauzak zertxobait desberdin izan direla erakustea, ai-patu ezaugarrietako batean bederen. Mendeko perpaus nominalizatuetako argumentuen markatzeari doakionean, hain zuzen, ikusiko dugu Ekialde zableko<sup>2</sup> euskarak noizbait O ez ezik, S ere genitiboan eman duela. Hasteko, euskarari orain arte ezagutu zaion genitibizatze motaz arituko gara, erran nahi baita objektu zuzenarenaz. Lehenik hurbiltze kontzeptual bati lotuko gatzaizkio, eta gero ikuspegি diakroniko bati. Ondoren, TOGEN delakotik kanpoko genitibizazio etsenpluak aztertuko ditugu, nagusiki subjektu iragangaitzarenak (ISGEN), fenomeno honek dakartzan ondorioak miatuz. Azkenik, genitibozko subjektu iragangaitzen jatorriaren gaineke hipotesi bat proposatuko dugu, genitibozko markatzearen gaineke hipotesi orokorrago baten baitan.

## 2. Metodologiaz bi hitz

Euskararen genitibizazioaz aritu diren euskalari eta gramatikagileen ekarpenak jasotzean ez dugu beti esplizitutasuna bilatu, batez ere XIX. mendeko lan deskriptiboei doakienean: hauetan fenomenoa jasorik izatea aski izan zaigu, haren berri zuzena ez eman arren. Bestalde, *genitibizazio* terminoa maiz baliatuko bazaigu ere, zehaztapen bat egin behar da: *genitibote*, *genitibizatze* edo *genitibizazioaz* mintzatzeak lehenago genitiborik gabe agertzen zen elementu batek berantago genitiboa hartu duela lekarke. Iku-siko denez (§ 6.3), euskararen genitibozko subjektu eta objektuen bilakaera azterzetik ezin da ondorioztatu horrelakorik gertatu den eta, beraz, ez dugu *genitibizazio* terminoa erabiltzea apropos ikusten. Izan ere, hastapen batean genitiboz emanak ziren argumentuen *desgenitibizazioa*<sup>3</sup> gertatu dela proposatuko dugu. Ikuspegি diakroniko horretatik, *genitibozko markatzearen* deitura ere ez litzateke guztiz zehatza, neutroago suertatzen bada ere, *desgenitibizazioa* izan baitzen subjektuak *markatzeko* hizkuntzak hautatu zuen

ing of things would not occur to us if we only had nominative languages to look at; for those Subject and Object are sufficient. The distinction of A from O is a direct reflection of the idea (probably traceable to Sapir 1917) of ergativity as sort of a complement to nominativity, where there are exactly two possibilities —the single argument of an intransitive can pattern with one or the other of the arguments of a transitive clause” (DeLancey 2005: 6).

<sup>2</sup> Euskararen geografiaz ari garenean, *Ekialde* terminoa ambigua gerta daiteke, bi adieratan erabiltzen ohi baita: batetik, Iparraldea eta Nafarroa Garaia hartzen dituen eremua, eta bestetik Zuberoa eta inguruko mintzoetara mugatzen dena. Hortaz, lan honetan *Ekialde zabala* eta *Ekialde hertsia* bereiziko ditugu. Zenbaitetan *Ekialde* soila baliatuko zaigu, batez ere Mende-baldeari oposatzean. Beste zenbaitetan, Nafarroa Garaiko daturik ezean, egokiagoa lirudike *Iparralde* erabiltzeak; halere *Ekialde* hobetsi dugu, iraganari begira Ekialde zabal hori gogoan dugula.

<sup>3</sup> *Desgenitibizazio* terminoaren adiera neutro eta etimologikoa proposatzen dugu: ‘genitiboa kendu edo ordezkatu’. Desgenitibizazio prozesuak ezagunak dira Dakhini eta Konkani hizkuntzeten (Bhaskararao & Subbarao 2004: 26-35).

bidea, *markatzearen* adiera ‘beste argumentuetarik era diferentean adieraztea’ izanik.

Corpusari doakionean, oro har Iparraldeko testu zaharretan xerkatu dugu, arreta handien zubererari eta inguruko mintzoei eskainiz. Ondoko egile eta testuek ongi lekukotzen dute subjektu iragangaitzaren markatze genitiboa: Tartas (1666, 1672), Belapeire (1696), *Oloroeko katixima* (1706), *Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750), Maister (Ligi, 1757), *Charlemagne* (~1835), *Boubane eta Chilhoberde* (xviii. mendea), *Saint Julien d'Antioche* (1770), *Jouanic Hobe eta Arlaita* (Olhaibi, 1788), *Edipa* (1793), *Malqu eta Malquolina* (Arue, 1807), *Kaniko eta Beltxitina* (Larribarre, 1848), *Recoquillart eta Arieder* (*Roland* pastoralaren barneko farta) edo zubererazko *Meditacioniac* (1844). Hein ttipiago batean, ondokoek ere: Leizarraga, Materre, Axular, Etxeberri Ziburuko, Archu, Duvoisin edo Adema “Zaldubi”. Halere, ohartarazi nahi genuke lekukotasun batean fenomenoaren ez aurkitzetik ezin dela besterik gabe idoki delako egileak ez zuela ISGEN baliatzen. Bada, zenbaitetan ikusten dugu testu batean ez dela aditz iragangaitza duen mendeko perpaus nominalizaturik, edo ageri ere, guk nahi ditugun aditz osagrietakorik gabe gertatzen dela.

### 3. Objektu zuzenaren genitiboa (TOGEN)

#### 3.1. TOGEN gramatiketan eta testuetan

Euskararen sintaxian bada aski aipatua izan den fenomeno bat, oraingoz *genitibizazioa* deituko duguna. Euskararen genitibizazioa mendeko perpaus nominalizatuetako osagarri zuzenean (O) gertatzen da, eta euskalaritzan usuen *Transitive Object Genitive* deitua izan da (TOGEN hemendik aitzina). Egun, genitibozko objektu hauek Ekialde zabaleko euskaran dira ezagunak. Perpaus nominalizatuei doakienean, gramatikagile modernoek honako auke-rak proposatzen dituzte:

- (1a) *Aita kalean ikusteak harritu nau.*
- (1b) *Aitaren kalean ikusteak harritu nau.*
- (1c) *Aitak etxe eder hori egiteak harritu gaitu.*
- (1d) *\*Aitaren etxe eder hori egiteak harritu gaitu.*
- (1e) *Aita lehenbailehen etortzeak poztu nau.*
- (1f) *\*Aitaren lehenbailehen etortzeak poztu nau.*

(Abaitua & Trask 1987)

Ikusten denez, halako perpausetako argumentuen artean soilik O izan daiteke genitiboan emana (1b), eta sekulan ez A (1d) edo S (1f). Erran bezala, TOGEN posible da perpausaren aditza nominalizatua denean, edo *ari* izan perifrasian: *Jin nintzen aitaren ikusteria* edo *Aitaren ikusten ari nintzen*,

baina \**Aitaren ikusi nuen*. Erregela ezinago markagarri da ondoko pasartean:

- (2) *Galthoa: Cer manhatcen deycu Eliçac bostgarren maniaz: laur themporac, vigiliac eta Goroçuma barour itçac ossoki? Ihardestea: Manhatcen gutu Goroçumaren, laur themporen eta vigilia manhatien beguiratcera (CatOlo 77).*<sup>4</sup>

XIX. mendeko zenbait gramatikagilek fenomenoaren berri guti gorabehera implizitua eman zuten. Guk dakigula, genitibozko objektuarekiko lehenbiziko erreferentzia Inchausperen lanean atzematen da, guk *aditz-izen* gisara ezagutzen ditugun formez, baina harentzat izenki huts diren *nom verbaux* direlakoez tratatzean (1858: 7-8) —aitzina goitizelik gara afera hone-tara—. Gèze ere implizituki barneratzen da TOGEN fenomenoa:

Il résulte du caractère de l'infinitif que, lorsqu'un substantif est en français régime d'un infinitif, il se trouve en basque le complément d'un substantif, et il doit être mis au cas demandé par son rapport avec son substantif; ex. *je l'ai vu envoyer le domestique*, 'mihilaren igorten ikhousi dut'; *nous sommes créés pour servir Dieu*, 'creaturic gira Jincouaren cerbutchaceco' (*pour le servir de Dieu*) (1873: 26).

XX. mendean Gavel & Lacomberen gramatikan era egokian jasotzen da TOGEN:

Normalement, dans les dialectes cispyrénéens, lorsqu'un substantif verbal est de ceux qui, par leur signification, seraient susceptibles d'avoir un complément d'agent, et par suite correspond pratiquement à un infinitif transitif des langues romanes, le mot qui, dans ces mêmes langues, serait le complément d'objet direct de l'infinitif, est mis au génitif déterminatif. Ex: ZURE IKHUSTEA *bethi enetzat atsegin handi bat izanen da*. "Vous voir sera toujours pour moi un grand plaisir". BETHIRIREN IKHUSTEAN *eztut ezagutu*. "En voyant Pierre je ne l'ai pas connu". *Bethi hari GAUZA BERARENERRAI-TEAZ aski dut*. "J'en ai assez de toujours lui dire la même chose" (1937: 42).

Gavel eta Lacombe konturatu ziren TOGEN araua ez dela sistematikoa. Elissambururen etsenplua gero deskribatuko den hertsapen posibleetako batean sartzekoa da:

Mais en d'autres dialectes le mot qui serait le complément d'objet direct de l'infinitif roman est traité à la façon d'un sujet passif et mis sim-

---

<sup>4</sup> Lan honetako testu aipamenak *Orotariko Euskal Hiztegiaren* laburduren sistemaren araberakoak dira. Ondoan zerrendatzen direnak OEHren corpusetik kanpo daude: *SteEli = Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750), *LeDauphin = Le Dauphin* ontziaren gutuneria (oraino argitaragabea), *De la Quadraren Doctrina christinaubarena* (Bilbao 1997), *Edipa* (Bilbao 1996), *DKhrist = Doctrina khirstia haurren instruccioetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageeco catichimati* (Baiona, 1812), *HOrdre = Heren-ordreco escu-libria igante bestetaco officio berrieki* (Oloroe, 1860), *Arch Psalm = Archuren Dabiden Gorantzak edo Paslmiak* (ca. 1860) eta *Zby Kant = Zalubuiren Kantikak* (Duhau 2009).

plement au nominatif. Cette pratique n'est d'ailleurs pas inconneue aux dialectes cispyrénéens, comme le montre l'exemple cité plus haut, emprunté à une chanson d'Elissamburu, *Galdegiten dut grazia, / dudan bezala hasia, / akhabatzeko bizia*, où "la vie" est au nominatif; mais dans ces dialectes le tour *biziaren akhabatzeko* serait beaucoup plus courant (*ibid.*).

Ondoren Lafittek (1944: 222) zenbait zehaztapen ekarri zuen: i) aditz-izena lokatibo edo komitatiboan agertzen denean objektua ez da genitibizatzen; ii) objektu zuzena aditzetik aski urrun agertzeak genitibozko markatza zailtzen du; eta iii) erramolde fosilduak —maizenik *othoitz egin* bezalakoak— arautik kanpo gelditzen dira. Ohar batean, halaber, Lafittek erran zuen objektua aditz-izenaren ezker ala eskuin agertzeak ez lukeela importa.

Lafitteren gramatika erreferentiazko lan bihurturik, ondotik etorri diren euskalariek haren datuak baliatu dituzte. Horrela gertatzen da Heathen lanarekin (1972), TOGEN inguruan egin den sistematikoena, guretzat zenbait puntutan gainditua izan arren. Harentzat, munduko hizkuntzetan ohikoa dena gertatzen da euskaraz ere: morfologikoki kasu markatu gabea daraman osagaiak du genitiboa hartzen, eta ez alderantziz. Hortaz, turkieraz aditz iragankorren objektuek ez baina subjektuek genitiboaaren hartzeko arrazoia horixe datza: hizkuntza horretan subjektu iragankorrak morfologikoki markatu gabeak izatean, euskaraz ez bezala (1972: 51). Euskararen kasu sistemak batera tratatzen ditu subjektu iragangaitzak eta objektu iragankorrak, subjektu iragankorra ergatiboaren bidez markatua denean. Horixe da sistema ergatibo batean espero dugun bereizkuntza.

Baina genitibizatzean, euskarak ez ditu subjektu iragangaitzak eta objektu iragankorrak berdin tratatzen. Izan ere, TOGEN euskararen sintaxia akusatiboa dela argudiatzeko baliatzen diren elementuetako batentzat hartu izan da (Oyharçabal 1992, Trask 2002 edo Albizu 2007), kontu eginik genitibizazio molde hau duten euskalkiek osagarri zuzena (O) dutela markatzen, subjektu iragangaitzak (S) zein iragankorrak (A) batera tratatuz. Heathen azalpena arrazoi funtzionaletan datza, genitiboa desanbiquatzeko baliagarri denean alegia: "Any overt NP can be unambiguously interpreted; with a transitive verb *-ak* is always ergative singular, *-en* absolute plural (converted into genitive plural), etc." (*ibid.* 57). Hurbiltze funtzionalak esplika lezake zergatik subjektu iragangaitzak ez diren genitibizatzen: kasu markei doakinean, perpaus iragangaitzek ez dute anbiguo gertatzeko arriskurik, baina bai perpaus iragankorrekin:

- (3a) *Arraina jaten ari da* → 'Arrainak jaten du' / 'Arraina jaten du' (nork zer jaten du?).
- (3b) *Arrainaren jaten ari da* → 'Arraina jaten du' (badakigu arraina jana dela).

Genitibizazioa agertzen duten euskalkietan, erregelea ez da bera eta bakarra. Lapurtera eta baxenafarrerari begira, Lafittek TOGEN arauarentzat markatu zi-

tuen hiru murritzapenak (ikus gorago) gogoratzen ditu Heathek. Zubereran, al-diz, TOGEN gauzatzeko baldintzak zabalagoak dira: a) lokatiboak eta komitativoak ez dukete TOGEN blokeatzen; eta batez ere b) genitibozko objektuak aditz-izenaz landako forma jokatugabeen ere gerta bide daitezke (*ibid.* 65).

### 1. taula

TOGEN: Nafar-lapurtera eta zubereraren arteko diferentziak

	L eta BN	Zuberera
Aditz erramoldeak	—	—
Lokatibo eta komitativoekin	—	+
Partizipioekin	—	+
Aditzetik aski urrun	—	+
Ezker / eskuin	?	+

Heathen ustez TOGEN perpaus nominalizatuez kanpo ere agertzen ahal da. Lapurteraz eta baxenafarreraz O-ren genitibizazioa aditz-izenari (*infinitive*) hertsatzen bazaio, zubererak onartzen luke ez jada aditz-izenarekin, baina partizipio eta are aditzoinarekin ere (1972: 67).<sup>5</sup> Horren erakusgarri Etxahun Barkoxekoaren bi etsenplu hautatzen du, nonbait bereziak: *haren hatçaman nahiz & khorpitzaren gal lotsaz*. Gure aldetik, zubereraren corpus zaharra azterkaturik, ez dugu ikusten TOGEN aditz-izenetik kanpo gertatzen den: hala interpreta litezkeen agerraldiek oro *nahiz* erakusten dute (4a), edo *gabez / gabia* (4b). Dena den, salbuespen bat kausitu dugu (4c):

- (4a) *Lurreko persounen nahiz / eraman celietara* (*SteEli* 1291).
- (4b) *Ohart cite, haren erran gabez sacrilegio icigarri bat eguin cinirola* (*Medit* 202).
- (4c) *Judiouec haren tcherkhacen cien bestan* (*EvS* 7, 11).

Euskarak aditz-izenetik (Traskentzat *gerund*) inperfektibozko partizi-piora egin duen bidea gardena izanik, TOGEN aise atzematen ahal da *ari* *izan* perifrasietai ere (3b, 5), bai eta inesibo arkaiko hura agertzen duten beste testuinguruetai ere (6):

- (5) *Eta ari ciradieno / ginco haien othoitcen / ari ciradie bethi / Ginco beritabiaren mesperetchatcen* (*SteEli* 1517).
- (6) *Eta bi erreguen goitcen / nahi badut laguntu* (*SteEli* 1451).

<sup>5</sup> Afera Gavelek eta Lacombek seinalatu zuten lehenago: “L'exemple suivant: *Botz haren entzin nahiz* ‘voulant entendre cette voix’ (...) est un curieux exemple d'extension de cet emploi du génitif déterminatif à une expression renfermant, au lieu d'un substantif verbal, un participe passé. Ce tour, bien qu'anormal, n'est d'ailleurs pas inexplicable, si l'on admet que le participe, dans l'esprit du sujet parlant, est complètement substantivé” (1937: 42).

Hitz ordenaz bezainbatean, *corpus zaharra* aztertzean erremarrikatu ahal izan dugu objektuaren lekuak baduela zerikusirik TOGEN arauaren betetze mailarekin, nahiz eta Lafittek kontrakoa mantendu: “Quand, par inversion, le complément est rejeté après le gérondif, il n'y a rien à changer aux règles ci-dessus” (1944: 222). Kasu batentzat, Mendebaldeko baxenafarreran kokatzen den *Kadet eta Bettiriño* testuan (Hazparne, ~1750), TOGEN erregela sistematikoki betetzen da ezkerrera, eta behin ere ez eskuinera (Padilla 2011: 75). Baino tradizioan aise aurkitzen dira genitibozko objektua aditz-izenaren eskuin duten adibideak (7a-d). Testuinguru honi doakiola, *corpus zaharra*nean hainbat aukera aurkitu dugu: egile batzuek berdin ematen dute genitibozko objektua ezker nahiz eskuin; beste batzuek ezkerrean beti genitiboz eta eskuinean gutiago, edo inoiz ere ez; azkenik, beste zenbaitek araua soilik ezkerrean ematen dute, eta hautazko maneran. Oro har, honakoa postula genezake: *testu batean genitibozko objektua aditz nominalizatuaren eskuinera agertzeak ezkerrera ere agertza dakar*. Beraz, TOGEN araua azkarrago da aditzaren ezkerrean eskuinean baino.

- (7a) *Desiratu ukana dutela ikustera zuek ikusten dituzuen gauzen* (Lç Mt 13, 17).
- (7b) *Eracousteco haren çuhurciaren eta bethierezco içatiaren* (Bp I 85).
- (7c) *Onxa eguin guiniro eguitez / asto lasterkhen* (*Jouanic Hobe* 22, in *AstLas* 165).
- (7d) *Ekharriric niçala eiztera dutudan hountarçun ororen bai eta biciaren beraren ere* (*HOrdre* 88).

### 3.2. TOGEN: ikuspegি diakronikoa

Lapurteran gertatzen diren murriztapenak zubereran ez atzematea Heathek TOGEN arauaren hedatze baten medioz azaltzen du: “Labourdin restricts the rule to infinitive clauses, while Souletin has a more general rule affecting all non-finite complements. It would seem more plausible to think of an originally limited rule becoming more general, rather than a general rule becoming arbitrarily restricted for unknown reasons” (1972: 66). Hizkuntzaren historiaurreari pentsa, Heathen iritziz TOGEN berrikuntza litzateke, hots, lehenagoko oinarritzko kasu markatze baten ostekoa (*ibid.* 52). Fenomenoaren berri ematean Trask (1995, 1997 & 2002) akort zen Heathekin, salbu haren jatorriaz:

The northern construction [TOGEN] must be an archaism, the last trace of the period when the gerund had not yet become truly verbal and was still exhibiting nominal properties (...). Southern dialects have therefore gone all the way in reanalysing the gerund as fully verbal in all circumstances, while modern varieties have not yet done so (1997: 244).

Baina afera trenkatua da Lakarrak Mendebal zabaleko testu zaharretan ere TOGEN ongi lekukotua dela erakutsi duen etik (1983: 58-62, 1996: 191),

berrikuntzaren hipotesia indargabetuz. TOGEN Mendebalde bezain Erdialdeko euskara arkaikoaren ezaugarri hautazko bat da, XVII. mendetik aitzina galdua. Beraz, Traskek arrazoi zuen: TOGEN Iparraldeak atxiki duen arkaismo bat da, aditz-izena izenki huts zeneko garaiaren azken herexa (1995: 225, 1997: 244). Hizkuntzak eskaintzen zituen bi aukeren artean, memento batetik aitzina Mendebaldeak eta Ekiardeak hautu diferenteak egin zituzten. Horrela, Iparraldeko euskalkietan genitibozko objektuek denboran iraunen zuten bitartean, azken mendeetan Mendebaldeko euskalkiek kontrako bidea kurritu dute.

Denboran gibelago joanik, genitibozko objektuen sorrera aditz-izenaren jatorrian letzake. Ingelesaren gerundioaren historian oinarrituz (Jespersen 1948), Traskek paralelotasun bat ezarri zuen euskararen eta ingelesaren gerundioen bilakaeran artean (1995: 225-7), biak izanik “the last vestige of the purely nominal properties which the verbal nouns possessed before they were reinterpreted as exclusively verbal in nature” (*ibid.* 225). Hau erranik, zilegi da pentsatzea TOGEN guretzat perpausaren argumentua (O) den osagai lehenagoko IS baten modifikatzaile hutsa zeneko garaiaren herexa dela. Nola edo hala, genitibozko objektuen *objektu tasuna* aditz-izenaren egiazko izaera ebaztean datza, eta berorri lotuko gatzaizkio ondoko puntuari.

#### 4. Agentea genitiboan, erromantzeen sartua

J.A. Lakarrak adierazi digunez, Mendebaldeko testu arkaiko eta zaharretan badira subjektu iragankorren genitibozko agerraldi zenbait, denak ere partizipioaren aldean:

- (8a) *Gaxoto irabazia iratxoen da irazia* ‘Lo mal ganado es de la fantasma exprimido’ (RS 301).
- (8b) *Erreguela / tercera Sāt Frāciscuarē ordea coa penitenciacoa ayta sanctu Nicolao / laugarrerenā emona eta otorgadua, eta ayta sātu sist lau / ga rrerenā aprobadua ta cōfirmadua...* (TAV 3.2.2).
- (8c) *Christoren prometituen* (TAV 3.2.12).
- (8d) *Andijan edo arinean dira diabruben imponidubac* (De la Quadra 106).
- (8e) *Labur da gizonaren adimentua / adizeko Jaunaren ordenadua* ‘Breve es el entendimiento humano para comprender lo ordenado por (lit. de) el Señor’ (Acto 71-2).
- (8f) *Guretakotzat jaio da Jesus, / askoren deseadua* ‘para nosotros ha nacido Jesús, el deseado de muchos’ (Acto 482-3).

Mitxelenak honela iruzkindu zuen eta azaldu (8a) adibidea:

M.<sup>a</sup> Teresa Echenique me mencionó un día algo que yo ya había olvidado o no había aprendido nunca: que *de es en es de la fantasma exprimido*, trad. de RS 301 *yracho en da iracia*, era perfectamente normal y

corriente. Esa proposición, como señala Menéndez Pidal, *Cantar de Mío Cid*, II, § 184: “indica también el agente de una oración pasiva, en vez del hoy corriente ‘por’”. Tendríamos, pues, en -(r)en una construcción de modelo español, mientras que hoy lo corriente entre nosotros es el empleo del ergativo. En cuanto a los dialectos septentrionales, según Lafitte, *Grammaire Basque* § 645, V, éste [el ergativo] es el uso normal, pero “certains disent moins bien au *médiatif* [ya desde Leiç.]: *amaz gastatua da, il est gâté par sa mère*” (PT 483).

Erran behar dugu gaztelania zaharraren sintaxi hori frantsesean ere ezagun izan dela, differentzia bakarra izanik Akitaniako idazle euskaldunek beste ilkibide bat aurkitu diotela:

- (9) *Gincoaz manatu den othoitcia* [ $\leftarrow$  *La priere publique commandée de Dieu*] (Bp II 11).

## 5. Euskararen *berezko* markatze genitiboa, O-tik kanpo ere?

### 5.1. Bossong vs. Abaitua & Trask eztabaida

Lan honetan euskarak —Ekialde zabalekoak bederen— garai batean genitibozko objektuez gain genitibozko subjektu iragangaitzak ere agertzen ahal zituela erakusten ahaleginduko gara. Beheitiago ikusiko denez, posibilitate hau preseski izan da ukatua, eta proposatura izan denean euskarazko datuen interpretazio oker batean oinarritu da. Bistan da, hizkuntzak A, S eta O argumentuak sintaktikoki lerratzen duen manerak ondorioak ditu. Izan ere, euskararen sintaxia eredu akusatibo batean kokatu izan da, haren morfologia purki ergatiboa denean:<sup>6</sup> *ergaccusativity* (Oyharçabal 1992). Traskek ere ber ideia adierazi du:

Basque therefore represents a paradigm case (perhaps *the* paradigm case) of a language which is entirely ergative in its morphology but entirely accusative in its syntax. Few, if any, other such languages are known, but the Basque case confirms that such a configuration not only is possible but can remain stable over a period of centuries (2002: 283).

Baina denek ez dute hain garbi ikusi; horren erakusgarri da Bossong vs. Abaitua & Trask eztabaida. Lehenak (1984) euskarak objektu zuzena ez ezik, subjektuak ere (iragangaitz zein iragankorrak) genitibizatzen dituela erakutsi nahi izan du. Bossong bereizkuntza falta horretan oinarritu zen euskararen

---

<sup>6</sup> D. Creisselk bestelako iritzia azaldu digu. Harentzat euskarak, hizkuntza kaukasikoek bezala, morfologia ergatiboa eta sintaxi neutroa luke. Bestalde, Aldairen ikuspegia (2009) ere kontuan hartu beharrekoa da. Honen ustez euskararen kasu-markatzea ere ez da guztiz ergatiboa: Mendebaldean lerratze semantikoa proposatzen du, Erdialde nahiz Ekialdean lerratzea ergatiboago litzatekeenean.

sintaxia ez bide dela akusatiboa ez eta ergatiboa ere proposatzeko: hizkuntza *subjektu* kategoriaren peitu litzateke. Zorigaitzez, euskararen (Lafitten) datuen gaizki ulertze batetik abiatua zen:

What we have here [Bossong's examples] is not the optional northern genitivization of NP arguments of verbal nouns, but ordinary possessive constructions. [...] The conclusion is inescapable. In northern dialects of Basque, the P of a verbal noun may be genitivized, but never the S or the A. This is exactly what is asserted by Anderson (1976) and by Heath (1972); Bossong rejects their assertion as "exaggerated", but his proposed counterexamples do not stand up to scrutiny (Abaitua & Trask 1987: 399).

Oro har, gramatikagileek ez dute S-ren genitibizazioa onartu. Pare bat baizik ez ekartzeko: "In northern dialects the TO of a transitive infinitive clause is genitivized, while TS's and IS's are unaffected" (Heath 1972: 48); "The fact is that genitivization of transitive objects is not only the 'most frequent' but the only type of genitivization possible in Basque" (Abaitua & Trask 1987: 397); "In northern dialects of Basque, the direct object of a transitive verbal noun may optionally, but preferably, appear in the genitive instead of in the absolute; no other argument can be genitivized in any circumstances" (*ibid.*); "In short, there is no genitivization of S or A, but only of P, demonstrating once again that Basque syntax is uncompromisingly accusative" (*ibid.* 398).

Halako segurantzari ñabardurarik egiten hasteko, Odriozolak, Axularren nominalizazio adibideak aztertzean, *aditz-izenak* izen edo *aditz tasunez hori*tuak diren gogoetatzen du: "Zenbait kasutan, ez da erraza genitiboa duen elementua subjektua ala osagarria ote den finkatzea" (1990: 137). Eta guri gehiago axola zaiguna, preseski aipatzen ditu *genitibozko subjektuak*. Jarratu baino lehen, komeni da gogoratzea munduko hainbat hizkuntzatan genitibozko subjektuak ezagunak direla:

Although in most nominative-accusative languages, the subject is case-marked by the nominative case, in quite a few languages the logical subject is case-marked by the nominative, dative, genitive or locative case markers. The phenomenon of non-nominative case marking has implications for a variety of syntactic phenomena such as agreement, antecedent-anaphor co-reference, control structures, coordination, occurrence or non-occurrence of lexical subjects in a co-verbal (i.e. conjunctive participial) construction, etc. (Bhaskararao & Subbarao 2004: ix).

Genitiboaren gainean eratu subjektuak aztertu dira japoniera, turkiera eta dagur hizkuntzetan (Miyagawa 2008) edo uigur hizkuntzan (Asarina & Hartman 2010), bestekat Beste. Turkierak genitiboa ematen ditu perpaus nominalizatuetako A nahiz S argumentuak. Turkieran honakoa gertatzen da: "They [subjects of both transitive and intransitive verbs] are all in the nominative case when they are the subjects of a fully finite, tensed clause, and they are usually in the genitive case, when they are the subjects of a nominalized subordinate

clause” (Kornfilt 1997: 217). Euskararen paralelo batentzat, beharbada pertinenteagoak den inglesaren genitibozko subjektuekiko konparantza (§ 6.3).

## 5.2. Auziaren gakoa: aditz-izenaren izen ala aditz izatea

Euskararen aditz sistemaren forma jokatugabeen artean aditz-izena da berriena. Hala beste formen gainean eratua izateak, nola atzizkien ugaritasunak eta haien banaketa dialektalak, aditz-izenaren sorrera berankorra salatzen dute (Trask 1995, Urgell 2006). Horrela izanik, euskara historikoan aditz-izenaren izaera ez dugu beti finkatua ikusten. Jada 1858an Inchauspek *nom verbaux* direlakoak izen hutsak zirela defendatu zuen:

On a donné, par analogie, le nom de *verbes* à des mots qui expriment en basque des idées rendues en français par les verbes attributifs. Ces termes ont, il est vrai, des caractères qui les distinguent des substantifs et des adjetifs ordinaires. Cependant nous ne croyons pas qu'on doive les appeler verbes dans la langue basque. On ne conçoit pas des verbes sans affirmation, sans indication de mode, de temps et de personnes; or ces termes exprimant simplement une idée, une manière d'être ou d'agir, sans aucune affirmation, sans indiquer aucun rapport soit au temps, soit aux personnes, sont dépourvus des propriétés essentielles du verbe, tandis qu'ils ont tous les caractères des substantifs et des adjetifs: ils se déclinent au défini, à l'indéfini, au singulier et au pluriel, et ils suivent pour l'accord et les régimes toutes les règles des adjetifs et des substantifs, surtout dans le dialecte souletin (1858: 7-8).

Inchausperen etsenpluetan, *hélte, jíte, jóaite, izáte, ukhéite, jóite, ebilte, igáite, gáltze, eskéntze*, etab. izen bezala dira emanak, izenek normalki onartzen dituzten osagarriez hornituak: *zer izate tristia; jíte hóri luzáten du*. Bain aita horien faltan ere: *háren ikhóustez asérik niz* ‘je suis rassasié de le voir’ (mot à mot ‘de vue de lui’); *ikhóusi dut háurraren jóiten* ‘je l’ai vu frapper l’enfant’ (mot à mot ‘en action de frapper l’enfant, in verberatione pueri’); edo *háren éntzutiak gáiztu du* ‘il s'est irrité en l'entendant’ (mot à mot ‘l'entendre de lui l'a irrité’). Hau da, Inchausperentzat *-te / -tze* atzizkien bidez eratzen direnak oro izenak dira. Dena den, borta zabalik uzten du: “Cependant, [...] nous devons leur reconnaître des caractères particuliers qui les en distinguent, et nous les appelons noms *verbaux*, parce qu’ils sont particulièrement destinés à être unis au verbe, et parce qu’ils expriment l’idée d’une action ou d’un état” (*ibid.* 11).

Aski berantago, Orpustanek ber ikusmoldea besarkatu du: harentzat TOGEN IS baten modifikatziale huts litzateke, eta ez zinez aktante bat: “C'est ce qui conduit notamment nos modernes grammairiens à parler, pour ce qui est un complément déterminatif d'un nom, d'un ‘complément d'objet direct’, appliquant au modèle basque et dans tous les cas l'analyse qui convient à l'infinitif latino-roman et notamment à la *proposition infinitive latine*” (1992: 539).

Arestian Bossong *vs.* Abaitua & Trask eztabaida ekarri dugu (§ 5.1). Haren kari, hamarkada bat berantago Traskek ondoko iruzkina egin zuen, afera betikoz trenkatuz:

Observe that this genitive is possible (indeed, obligatory) only with the direct object of a gerund, and in no other circumstances. This fact has not always been understood, because of apparent counterexamples like the following: *Aitaren jiteaz atsegin dut* ‘I am happy at the arrival of my father’, in which the genitive *aitaren* appears to be the subject of an intransitive gerund *jitea* ‘arrival’, from *jin* ‘come’, and *aitaren egite hori* ‘that deed of father’s’, in which genitive *aitaren* appears to be the subject of a transitive gerund *egite* ‘deed’, from *egin* ‘do’. But this is not so. In these examples, we are not looking at any gerunds at all, but only at ordinary verbal nouns which happen to be identical in form to gerunds of the same verbs. Like other languages, Basque has several suffixes for deriving nouns (verbal nouns) from verb-stems, and among these are the suffixes also used to form gerunds. It is a simple matter to show that these examples are nouns, and not gerunds, because they plainly have nominal properties, while gerunds have only verbal properties. For example, we can say *aitaren egite izugarri horiek* ‘those terrible deeds of father’s’, in which the noun *egite* ‘deed’ takes not only a genitive but also an adjective (*izugarri* ‘terrible’), a demonstrative and a plural marker; a true gerund can do none of these things (1997: 245).

Puntu honetan Traskekin guk halaxe ikusten dugu auzia: euskarak baditu aditz nominalizatuen formalki identikoak diren izen hutsak, eta haien aditz-tasun osoa atxiki duten bitartean, hauek izenen ezaugarri sintaktikoez hornituak dira. Bereizkuntza hau klarki gogoratzea funtsezkoa izanen da gure proposamena defendatzeko tenorean (§ 6).

## 6. Subjektu iragangaitzen genitiboa (ISGEN)<sup>7</sup>

There seems to be no natural explanation of why TO’s but no IS’s are genitivized [in northern Basque], if this genitivization is considered as merely a special case of the general genitivization rule (Heath 1972: 53).

### 6.1. ISGEN: existentziaren frogantza

Ezaguna da egungo hizkuntzaren berri ematean egin daitezkeen baiezta-penek anitzetan ez dutela ber indarra iraganera bihurturik (edo baliorik batere ez). Bestenaz, argi dugu hizkuntza baten historia ezagutzeko bide zuzen eta

---

<sup>7</sup> Objektuaren genitiboari erreferentzia egitean *transitive object genitive* deitura baliatzen badugu (euskalaritzan ongi errrotua izanik), koherente iruditu zait subjektu iragangaitzaren genitiboa *intransitive subject genitive* (ISGEN) izendatzea. Ezaugarri hauak ber fenomenoaren agerpenak izanik, jarraikortasun bat bilatu nahi izan gu —eta, zeren ez, estekadura terminologiko bat.

bakarra lekukotasun zaharretara jotzea dela, eta euskararen kasuan anitz dukegu oraino horietan xerkatzeko. Ene gustuko sekula ez diegu testu zaharrei aski atentziorik emanen: haien zerratzen dute hizkuntzaren iragana, eta haien dute iragan hori erakusten —ikusteko prest dagoenari—. Genitibozko markatzeaz denaz bezainbatean, seguru zenari (O argumentuarenari) orain S-reна emendatzen diogu, eskrutiniorik zorrotzena iraganen duten etsenpluekin.

Hasiera batean *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerian atzeman genituen genitibozko subjektu iragangaitzen adibide ezinago garbiak,<sup>8</sup> baina testu honen kokapen berezia gogoan izanik (Eskiula, 1750 [Oyharçabal 2004]) bitxikeria isolatu bat izan zitekeela pentsatu genuen. Ondoren, zubereraren corpus zaharra azterkatzean, ohartu ginen genitibozko subjektu iragangaitzak ez zirela batere arraroak (eta ez bakarrik Zuberoan). Aski da lekukotasunen zerrendari soño bat egitea ezaugarriaren hedadura historikoaz jabetzeko; bestalde, badirudi zenbatenaz ekialderago hainbatenaz maizago lekukotzen dela ISGEN. Zuberoan: Tartas, Belapeire, *CatOlo*, *SteEli*, Maister, *StJul*, *Edipa*, irri antzertiko lanak, *Xarlem*, *DKhirst*, *Medit* eta are Constantin. Lapurdin (gutxi edo inoizka): Leizarraga, Materre, Axular, Etxeberri Ziburuko, *Le Dauphin*-eko gutunak, Zaldubi.

Oro har, fenomenoaren maiztasuna oso baxua da Zuberoatik kanpo, egile batzuengan marjinal izanik ere. Beste zenbait egilerengen ez dakigu ISGEN posible zenetz, haien testuetan ez baita testuingurua gertatzen (zorigaitzez, halakoa da Etxeparereren kasua). Ondoan aditz-tasun osoa atxiki duten aditz iragangaitz nominalizatuen genitibozko subjektuak eskaintzen dira, AS-ri doazkion osagaien arabera zerrendatuak:

### 6.1.1. *Datibozko osagarriarekin*

- (10) *G. Cer ikhasteco da Jesus-Christ Jauna ganic? I. Guihauren hareki Aita bethierecoari oherescatcia, guciz Meçaco sacrificio saintian*<sup>9</sup> (Bp II 106).

<sup>8</sup> *Adibide garbi* erraitean hauxe nahi dugu adierazi: genitibozko subjektu iragangaitza eta aditz-izenaz gain, AS-ri dagokion beste zein-nahi osagai erakusten duten perpaus nominalizatuak baino ez ditugu kontuan hartuko. Hortaz, ekarri ditugun etsenpluetan aditz-izenek beren aditz-tasun osoa atxikitzen dute, adberbioak, kopulak eta era guztietako adjunktua onartzen dituztelako. Bestela erraiteko: [GEN + aditz-izen] egitura agertea ez zaigu aski, nahiz halako zenbaitetan egiazko perpaus nominalizatua izan, batere dudarik gabe: *Erak: ene pausatze*ko [= ‘ni pausa nadin’] / *oihan zabalik badu*ka? (*Jouanic Hobe* 62, in *AstLas* 168).

<sup>9</sup> Pasarte honek atentzioa merezi du. Ohart bedi, batetik, *ohereskatu* aditzaren erregimen zaharra dugula hemen: *nor nori ohoreskatu*. Ohart, bestetik, datiboa markatzen duen sintagma *hareki Aita bethierecoari* dela, X-reki Y ‘X eta Y’ koordinamoldearen bidez. Beraz, ‘hari [Jesu-Christi] eta Aita bethierecoari oherescatcia’. Arkaimo honek Iparraldean utzi duen aztarnarentzat ikus Lakarra (2008), Padilla (2011: 76-77) eta Camino (2011). Zubereraz halako dozena bat etsenplu bildu dugu azken aldian.

### 6.1.2. Atributu eta kopularekin

- (11a) *Jesus-Christen batheyatu içatia Jondané Johané Batistaz* (Bp II 24).
- (11b) *Ostaclia oro duçu / haren hain gazte içatia* (*SteEli* 95).
- (11c) *Balukeçu erremedio / çoure libre içateko* (*SteEli* 370).
- (11d) *Ounxa ceikularic gaitci / çoure mesperetchaturic içatia* (*SteEli* 374).
- (11e) *Ene eri içatiaz, / ene erren maitia, / etcituala ez içan / batere aflegitia* (*SteEli* 1276).
- (11f) *Eztuçu behar debeiatu / ene hounic içatekoz* (*SteEli* 1417).
- (11g) *Cu aldiç etcituala alaguera, eç hartan, eç hountan, bena bai çoure cihauren mesperetchatu içatian* (*Mst III* 49, 7).
- (11h) *Jauna, justo duçu / çoure erregue içatia* (*Edipa* 410).

### 6.1.3. Atributu eta inesiboarekin

- (12a) *Bonurra dugunaz gaignian / arkort içateko heben, / ene alhabaren içateko / erreguina Portugalen* (*SteEli* 159).
- (12b) *haren beraren eracaxiric içateco goure diocesan* (*DKhrist* 6).

### 6.1.4. Egitura predikatiboekin

- (13a) *Cu beithan diagoçu ene ahoüa, botcic gabe, eta ene ichilic egoitia mintçatcen çaiçu* (*Mst III* 21, 4).
- (13b) *Harengatic çoumbait orduç ihardexi ukhen ciçün, beldurreç flakier bere ichilic egoitiac escandal eman leçan* (*Mst III* 36, 2).
- (13c) *Eta haur prodigouaren umiliaturic arrajitiaz aitac ukhen cian plazerac ez du erhi ideia baicic emaiten celuko Aitaren plazeraz* (*Medit* 146).

### 6.1.5. Soziatiboarekin

- (14) *Harengatic erraiten deiçu bere plazerac eşarten dutiala guiçonen hau-reki içatian* (*Medit* 136).<sup>10</sup>

### 6.1.6. Leku osagarriekin: ablatibo, adlatibo, inesibo

- (15a) *Arimaren gorputcetic partitcean içanen den eguitecoa eta herstura* (*Mat* 34).
- (15b) *Iesus Kristoren Hierusalemera sartzearen gañean* (*EZ Noel* 101).
- (15c) *Hanitz duçu, sira, / çoure houna gitia, / eta Portugaleric houna / bidian eşartia* (*SteEli* 110).

<sup>10</sup> Lapurterazko originalean ere ISGEN gertatzen da: *hartarakotz erraten daroku, bere plazerak ematen dituela gizonden umeekin izatean* (*Brtc* 231).

- (15d) *Perssona haien ikhoustiak / bai eta gogouala gitiac / eztutia oro branlatcen / guiçonaren centu guciac?*<sup>11</sup> (SteEli 319).
- (15e) *Zorigaixto zela hire / gure etxian gerthatza!* (Kaniko 451, in AstLas 211).
- (15f) *Anaya, desiratu içatu dut hanitxetan çuben byen hemen içatea* (LeDauphin, Pierre d'Etchevers).
- (15g) *Ene semia, etcitala triste, ouhourian, eta goratarçunian, besten ikhousteç, cihauren aldiç, mesperetchian, eta aphaltarçunian içateç* (Mst III 41, 1).
- (15h) *Bena çoumbait hountarçun bere buriari emaiten dianac, Jincouaren graciaren bere beihara jitiari baragallubat eçarten du* (Mst III 42, 2).
- (15i) *Goure berthutian aitcina jouaitiaren, eta boronthate hounaren araur* (Mst I 19, 2).
- (15j) *Jesus-Christen ifernietarat jaistiaz, haren hiletaric phiztiaz, eta celierrat igaitiaz* (DKhirist 24).
- (15k) *Bai eta zenbat errespetu haren han izaiteari* (Zby Kant 74).
- (15l) *Theadossa, cer da sugeta / çoure houna gitia, / eta ounxa beguira ciçadan / Charlemaignaq igortia?* (Xarlem 740).
- (15m) *Plazer hartçen dit çoure / desseing hounian jçatia* (Xarlem 148).
- (15n) *Badüzü mila egün / zure huna jitia* (Malqu 400, in AstLas 251).

#### 6.1.7. Denbora osagarriekin

- (16) *Etcen possible içan / haren secula combertitcia*<sup>12</sup> (StJul 101).

#### 6.1.8. Modu adberbioekin

- (17a) *Damuago baitzenduke zeure anaia haren kalteaz, eta haren hala izaitearaz* (Ax 206).
- (17b) *Amaren hola jartetic / ounxa dit comprenitcen, / segurki ere niçala / gaiski bai agitzen* (SteEli 896).
- (17c) *Etcitadaçu hambat propy / çoure hola mintçatcia* (Boubane 126, in AstLas 117).
- (17d) *Haren hain garbiki mintzatziak eman zeron estimü handi bat mandozain apezaren* (Const 27).
- (17e) *Themporaten ounxa jitiaren araur, debocionen khambiatciac ere placer eguiten deicu* (Mst I 19, 5).

<sup>11</sup> *Perssona haien ahapaldiko bi aditzen argumentu da: lehenbiziko aditzaren osagarri zuzena eta bigarrenaren subjektu iragangaitza. Beraz, hemen TOGEN eta ISGEN erregelen adibide bikoitza dugu eta (15g)-n ere bi erregelen paralelotasuna prezatzen da.*

<sup>12</sup> Irakurleak oposa lezake *combertitcia* aditz iragankor gisa agertzen dela, eta beraz *haren* TOGEN etsenplu bat dela, baina guk ez dugu horrela interpretatzen, eta ber testuak *combertirazteco* (0107) emateak argiago errendatzen du afera.

- (17f) *Beldurreç gaicen ounxa jouaitiac gora eraci citçan* (Mst III 30, 4).
- (17g) *Houn-da çoumbait orduç estecamentu, eta desircunte hounen ere bri-dtcia, beldurreç, hen ussiegui jitiac, eçpiritia barreia eraci diçaçun, edo çoure aski beguiratu içan gabiac, bestiac bekhatiala eror eraci citçan* (Mst III 11, 2).
- (17h) *Eçkintek hagn ehignera nahas, besten goure sendimentien courtre jouaitiaç* (Mst I 14, 1).

#### 6.1.9. Adlatibo, inesibo eta instrumentalarekin

- (18) *Andre dana Mariaren Paradussialat Corpitz eta arimatan Jesus bere semiaren indarraz igaitia* (Bp I 148).

#### 6.2. ISGEN erregela zertan den

Argumentuen markatzeari doakionean, ISGEN erregelak lerratze ergatiboa ezartzen du. Beraz, eta espero daitekeenez, aditz iragankorren subjektuek ezin dute, inolaz ere, genitiboan agertzen ahal:<sup>13</sup>

- (19a) *Ingrat eta injusto lukeçu / nic çoure refusacia* (SteEli 157).
- (19b) *Francesaq francesaren jcoustic / bethi plaçer eguiten dou* (Chiveroua 126, in AstLas 137).

Orain arte *Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750) da ISGEN hobekien lekukotu duen testua. Trajeria osoan bilatu ondoan, hamaika adibide garbi aurkitu dugu (adibide garbi batentzat zer hartzen dugun argitzeko ikus 9. oin-oharra). Dozena batek ez lirudike oso kopuru altua, baina garrantzi-tsuna da kontra-etsenplurik ez izatea, erran nahi baita \*zü huna jitia bezalakorik ez dela (eta gehiago dena, \*zü jitia bezalakorik ere ez). Mendeko perpaus nominalizatuetako subjektu iragangaitzak oro, aldiz, genitiboan dira emanak, honako aditz ezaugarriak atxikitzen dituztela: atributu edo kopulak (11b-f, 12a), inesiboak (12a, 15c), ablatiboak (15c), adlatiboak (15c, d) edo modu-adberbioak (17b). ISGEN erregelari oposa dakiokeen salbuespen bararra (20) arras kasu berezia da, subjektua izenordain indartu baten forman delako (*nihau*), eta korreferentzian:

- (20) *Eci deus eztit estimatcen / nihau mesperetchatu içatia* (SteEli 379).

---

<sup>13</sup> Egia erraiteko, A-ren genitibazioaren adibide garbi bat kausitu dugu (8a-f) adibideetako kalkoetz landa, baina mementoko bakarra: *Sira, zure izentatzez ene / enperadore errestü-mako, / kuntent dira mündü oro, / sarri beniae ezagiütiko* (Kaniko 448, in AstLas 211). Hemen objektua ere genitiboan agertzen da, eta markagarria da aditzaren eskuin izatea, agian A (*zure*) eta O (*ene*) ongi bereizteko —fartzaren testuinguruan Satanek enperadore izendatu duena Santi berari mintzo zaio.

Nolanahi ere den, *Sainte Elisabeth de Portugalek* ezaguna frogatzen du: euskaran markatze genitiboaren arauak ez du eraginik aditz iragankorren subjektuetan, hauek ezinbestean ergatiboa izan behar baitute emanak (21a, b):

- (21a) *Eguia duçu: senharrac emaztiari / eguitia hala handi duçu* (*SteEli* 430).
- (21b) *Bena segur içanen duçu / harec çouri guerla emaitia* (*SteEli* 1140).

Jakina, ikusi behar liteke testu bakoitzean ISGEN emankorra, ihartzen hasia ala fosoldua den. Horrela, zenbait testutan ISGEN arauaren kontra doazen adibideak atzeman ditugu, guti badira ere (22a-i), eta beste testuetan bat bera ere ez (hala Oloroeko katiximan nola *Sainte Elisabeth de Portugal* edo *Charlemagne* trajerietan).

- (22a) *Icē amoriozco hunec (çu ene Aita içaiteac)* (*Mat* 272).
- (22b) *Manatzen du bat bedera hartzaz orhit izatera* (*Tt Onsa* 34).
- (22c) *Jauna, cer da/guiçona, çu hartçaç orhit içateco, edo cer da/guiçonaren semia, çuc hora bisita deçaçun?* (*Mst III* 40, 1).
- (22d) *Zer da gizona hartaz zü ohartzeko, edo gizonaren semia haren ikuhs-tera zü jiteko?* (*Arch Psalm VIII*).
- (22e) *Nour niz ni, ô gloriazco eta majestatezco Gincoua, çu nitara gin nahi içateco?* (*UscLib* 108).
- (22f) *Ez da comeni mundupian bici behar dena hain ussu mahain saintiala huillantcia* (*Medit* 139).<sup>14</sup>
- (22g) *Jauna, çu hemen içaterat, ene anaya etcen hillen* (*Lg II* 203).
- (22h) *Hek ethortzearekin / akhabo negua* (*Zby Kant* “Primadera”).
- (22i) *Bakea jitearekin, kristauek lehen urtetan / Eliza bat zuten egin Sainda horren ohoretan* (*Zby Kant* 174).

Ikusi behar liteke, halaber, egileek zer jite duten perpausen nominalizatzeko tenorean: *hura joan dadin* ala *hura joaitea* moldeen maiztasuna aztertu behar da, eta azkenean nominalizatzen dituzten perpausetako subjektu iragangaitzak nola izaten diren emanak. Bestalde, ez da komeni arrazoin pragmatikoan ahanztea; baliteke ISGEN mintzamoldeetarik hurbilago den ezauigarria izatea (beharbada horregatik herri antzertiko lanetan lekukotzen da hobekien). Azkenik, argudia liteke itzulpenek arauaren ez betetzea eragiten dutela.

### 6.3. ISGEN: jatorriaren gaineko hipotesia

Orain arterainokoa ikusirik, ondorio klar batera gatoz: perpaus nominalizatuetako argumentuen markatzeari doakionean, (Ekialde zabaleko) euska-

---

<sup>14</sup> Lapurterazko iturrian: *Ez da konbeni, diote batzuek, mundupean bizi behar dena hain maiz mahain saindurat hurbiltzea* (*Brtc* 236).

rak noizbait berdin tratatu ditu objektua eta subjektu iragangaitza eta, beraz, lerratze ergatibo bat erakutsi du sintaxiaren atal honetan. Trasken hipotesi-tara itzuliz, 1995eko bere lanean azalpen bat bilatu zion euskararen TOGEN fenomenoari (§ 3.2), arraposta ingelesaren gerundioaren historian edirenez. Hortaz, Jespersen-en lan batean oinarrituz (1948), paralelotasun bat ezarri zuen ingelesaren gerundioaren eta euskararen *aditz-izenaren* historien artean. Izan ere, bien kasuan *gerundioak* jatorri nominal huts bat izan zukeen, eta denborarekin hastapeneko izen deberbal haiiek aditz ezaugarriak hartuz joan ziren, harik eta gerundio bihurtu arte. Egungo ingelesaren genitibozko subjektuak<sup>15</sup> eta Iparraldeko euskararen genitibozko objektuak behialako izentasun haren lekuoa dirateke:

In both languages, the suffixes in question originally derived nouns from nouns; in both, the suffixes eventually acquired the ability to be added to verbal nouns; in both, the derivatives of verbs were originally true nouns, with no verbal characteristics; in both, the verbal nouns gradually acquired more and more of the characteristics of verbs, shedding their nominal properties along the way; in both, this process has not yet quite gone to completion, with genitive objects (in northern Basque) and genitive subjects (in English) still being the norm (Trask 1995: 227).

Funtsean, akort gara Traskekin, baina hark ez zuen azaldu zergatik euskaran ez den genitibozko subjekturnik, ez iragankor ez iragangaitzik.<sup>16</sup> Trasken hipotesiaren abiapuntu harturik, badugu egoera bat non hiru *aktanteak* genitiboan emanak baitziren, hirurak izenki huts bat buru zeukan IS baten osagarriak ziren heinean: *haren egitea* (A), *haren egitea* (O), *haren etortzea* (S). Bidean zer gertatu zen esplikatu gabe, Trask denek ezagutzen dugun helmugara heltzen da: *hark egitea* (A), *haren egitea / hura egitea* (O), *hura etortzea* (S). Hipotesi honek ondokoa dakin impliziturik: hasierako izen deerbalek aditz-tasunen hartzeko bidean, euskarak subjektua (A zein S) hastapenetik markatu zuen (uler bedi *markatzea* ‘desgenitibizatzea’). Jakina, hau posible da. Horrela izatera, lehen ekarri ditugun ISGEN adibideak Ekialdeak berantago bere kasa egin eta ondoren arrakastarik izan ez zukeen berrikuntza batean kokatzeko lirateke.

Bigarren aukera da pentsatzea abiapuntuan hiru aktanteak genitiboan iza-ten zirela emanak, salbu haietako bi batera agertzen baziren, hau da, A eta

<sup>15</sup> “Still today, a gerund in English takes its subject in the genitive case for many speakers: *I don't approve of his doing that*. Some speakers, especially in Britain, have replaced the genitive by the objective: *I don't approve of him doing that*. But nowhere is possible to use the ordinary subject case with a gerund: *\*I don't approve of he doing that*” (Trask 1995: 226).

<sup>16</sup> Nonbait, Traskek ba omen zuen ISGEN sintaxiaren berri: “Rebuschi 1995 shows that, in early texts in northern dialects, the genitive could also be used for the subject of the verbal noun of an intransitive verb” (1995: 225). Nolanahi ere den, Traskek ISGEN ezagutu ez balu bezala jokatu zuen.

O.<sup>17</sup> Kasu horetan euskarak subjektu iragankorraren markatza (desgenitibizatzea) hautatu zukeen, ergatiboaren morfema erantsiz, subjektu iragangaitzak genitiboan jarraitzen zuela. Denborarekin ISGEN indargabetuz eta galduz joan zen —guk dakigula, egun ez da gehiago emankorra—, TOGEN-ek luzeago iraunez. Hipotesi honek lehen ikusi diren ISGEN adibideak bere azkenean zegoen arkaismo baten isla izatea lekarke. Bistan denez, azalpen honek kanbiamendu gutxiago eskatzen du; kasu hauetan erraitea usu den bezala, “merkeago” zaigu. Haratago joanez, ikusmolde honek bilakaera orokorrago batean kokatzen ditu euskara historikoak lekukotzen dituen genitibozko objektuak eta genitibozko subjektu iragangaitzak.

Bestela formulatzeko, ISGEN fenomenoak bi esplikabide ditu: 1) Ekialdeak egin duen berrikuntza izan dadin; edo 2) Ekialdeak atxiki duen arkaismoa izatea. Lehen aukerak sintaxi jada akusatibo batean noizbait markatze ergatibo bat azaleratzea suposatzen du, beharbada morfologiarekiko erregulartze batengatik. Bigarrenean pentsatu behar da ISGEN sistema ergatiboago batetik sistema akusatibora iragaiteko bidean gelditu den herexa dela. Bistan da, arkaismoaren hipotesiak bide zuzenago eta simpleagoa eskaintzen digu, konprenitzeko errazagoa, eta aldaketaren norabidea gogoan, espero dugunarekiko koherenteagoa ere.

## 7. Ondorioak

Ezaguna den —eta oraino bizirik den— TOGEN fenomenoaz apart, euskara historikoak genitibozko subjektu iragangaitzak ere onartu ditu, Ekialde zabalean bederen. ISGEN adibide argiak Iparraldeko euskara zaharrean aurkitzen ahal dira, zenbatenaz ekialderago hainbatenaz indartsuago lekukotu ere. Genitibozko markatze molde hau TOGEN arauak dituen testuinguruei eta murriztapenei hertsatzen zaie: funtsean, mendeko perpaus nominaliztuei.

Horrekin, euskararen sintaxia guztiz akusatiboa dela erakusteko baliatu diren parametroetako batean (hots, genitibizazioan) lerratze aldaketa bat geratatu izan da: eskema ergatibo/absolutibo bati dagokion A / S, O bereizkuntza batetik A, S / O lerratze nominatibo/akusatibo batera. Bestalde, badakigu iraganean TOGEN euskara komunaren ezaugarri bat izan zela (Lakarra 1983 & 1996). Denboran gibelerago joanik, genitibozko objektua gerundioaren (aditz-izenaren) historiarekin lotzekoa bide da; konkretuki, haren jatorrizko izaera nominalaren aztarna litzateke (Trask 1995; 1997).

Lan horetaz denaz bezainbatean, uste dugu ISGEN gisara izenda daitekeen araua ere ber testuinguruuan esplikatzekoa dela, haren balizko hedadura

---

<sup>17</sup> D. Creissel sek erremarkatu baitigu, munduko hizkuntzetan perpaus bateko argumentuak markatzean objektuek izaten ohi dute lehentasuna. Oro har, aditzetik hurbilen den argumentuak hartzen luke lehentasuna.

orokorra testuek frogatzen ez badute ere. Izañ ere, TOGEN-ek luzazkiago iraun du, eta horregatik ongi lekukotua da Ipar nahiz Hegoaldeko euskara zaharretan. Aldiz, ISGEN jada lehenbiziko testuetarik ikusten dugu Iparralderako mugatua, egungo euskaratik<sup>18</sup> desagertua izanik, eiki. Bestenaz erraiteko, objektuaren genitiboa (TOGEN) eta subjektu iragangaitzaren genitiboa (ISGEN) fenomeno orokorrago baten agerpenak baino ez dira.

Aldi historikoan desgenitibazio prozesu bat gertatu da, objektuen kasuan hobekiago lekukoturik, eta subjektu iragangaitzenean soilik azken fasesan ezagutua, hauen galera besteena baino lehenagotik abiatua baitzen. Azken finean, ISGEN arauaren proposamenak Trasken TOGEN fenomenoaren jatorriaren gaineko hipotesia (1995) indartzen du, ber honek zuen hutsunea betetzera baitator.

## 8. Bibliografia: corpora

- Agirre, P., 1996, *Athanase Belapeire: "Catechima Laburra"* (1696): autorearen garaia, nortasuna eta idazlanak, grafiak eta fonologia, edizio kritikoa eta hiztegia, doktorego tesi argitaragabea, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Anonimo, 1812, *Doctrina khristia haurren instruccionetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati*, Cluzeau, Baiona.
- Anonimo, 1814, *Uscara Libria, confessioniaz, communioniaz eta meçaco sacrificio saintiaz*, Cluzeau, Baiona.
- Anonimo, 1844, *Meditacioniac khristitarzuneco egua, obligacione eta berthute principalez*, Lapeyrette, Oloroe.
- Anonimo, 1860, *Heren-ordreco escu-libria igante bestetaco officio berrieki*, Lapeyrette, Oloroe.
- Archu, J.B., ca. 1860, *Dabiden Gorantzak edo Psalmiak* <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArxuBonaparte002.htm>>
- Axular, 1643, *Guero*, Milanges, Bordele.
- Baratciart, A., 1784, *Guirstinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*, Fauvet-Duhart, Baiona.
- Bilbao, G., 1996, “Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa pastorala* (1793)”, *ASJU* 30: 1, 239-332.

<sup>18</sup> Oro har ISGEN fenomenoa Ekieldeko euskara zaharrean kokatzeko da. Baino sintaxi zaharraren arrastorik aurkitzea suertatzen ahal da. Arunet harritu naiz Johañe Bordaxarren antzezlanean, José Mendiague pastorelean, ISGEN arauaren bi adibide kausitzean:  *Beste pena bat handia / haurren hurrin joaitea / Bihotza düt ürratürik / ama hanitxen zortea!* ‘Comme beaucoup d'autre mères, / je suis contrainte d'accepter / le départ de mes enfants, / cela me brise vraiment le cœur’ (*ibid.* 30); eta *Europan gerla handia / horrek dū gose gorria / Beharrreko izanen da / gure saihets egoitea* ‘La grande guerre d'Europe / engendre la faim, / nous ne devons surtout pas / nous y engager’ (*ibid.* 166). Bistan da, bietan mendeko perpaus nominalizatuan adberbio bat txertatzen da genitibozko subjektuaren eta aditzaren artean. Arras minoritarioak badira ere, halako agerraldiek nonbait ISGEN Ekieldeko hiztunen memorian datzala erakutsiko lukete eta, beraz, haren galera ez bide dela aspaldidianikoa.

- , 1997, “De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak. I. *Doctrina christinaubarena*”, *ASJU* 31: 1, 247-336.
- Constantin, J.B., 1926, “Aipamen llabur bat Haritchabalet Jaun apezaren gainen”, *Euskalduna*. Berrarg. Egan 1985: 3-4, 13-43.
- Duhau, H. (arg.), 2009, *Gratien Adema Zaldubi. Kantikak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etcheberri, J., 1697 [1630?], *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Maffre, Baiona.
- Larreguy, B., 1777, *Testamen çaharreco eta berrico historioa*, Duhart-Fauvet, Baiona.
- Leizarraga, J., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Berrarg. Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.
- Loidi, A., 2004, “Antiokiako San Julianen pastorala (1770)”, *ASJU* 38: 1, 1-133.
- Maister, M., 1757, *Jesu-Kristen Imitacionia [...] Desbaratz*, Paua.
- Materre, E., 1623, *Doctrina christiana*, Milanges, Bordelle.
- Maytie, J., 1706, *Catechima Oloroeco Diocezaren cerbutchuco [...] Messire Joseph de Revol hanco Aphetzupiaren manuz eguna*, Dupoux, Paua.
- Mitxelena, K., 1990, *Textos Arcaicos Vascos*, Berrarg. *ASJUren Gehigarriak* 11, Gipuzkoako Foru Aldundia - UPV/EHU, Donostia.
- Oyarçabal, B., 1991, *La pastorale souletine. Édition critique de “Charlemagne”*, *ASJUren Gehigarriak* 16, Gipuzkoako Foru Aldundia - UPV/EHU, Donostia.
- Padilla, M., 2011, *Kadet eta Bettiríño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2013, *Sainte Elisabeth de Portugal. Edizio kritikoa* [eskuizkribua].
- & X. Videgain, 2013, “*Le Dauphin*” itsasontziko gutuneria [eskuizkribua].
- Tartas, I., 1666, *Onsa hiltceco bidia... Rovyer, Orthez*.
- Urkizu, P., 1998, *Zuberoko irri teatroa*, Izpegi, Baigorri.
- Urruthy, A., 1873, *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera*, Cazals, Baiona.

## 9. Bibliografia: erreferentziak

- Abaitua, J. & R.L. Trask, 1987, “Accusativity in Basque: reply to Bossong”, *Linguistics* 25, 395-401.
- Albizu, P., 2007, “Euskararen ergatibotasuna: ohar batzuk dakigunaz eta ez dakigunaz”, in J.A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *2nd Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra - II Congreso de la Cátedra Luis Michelena*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- , 2011, “Hizkuntza ergatiboa”, in P. Salaburu (arg.), *Sareko Euskal Gramatika* <<http://www.ehu.es/seg/morf/2/1>> [azken kontsulta: 2013-7-13].
- Aldai, G., 2009, “Is Basque morphologically ergative?”, *Studies in Language* 33:4, 783-831.
- Asarina, A. & J. Hartman, 2011, “Genitive Subject Licensing in Uyghur Subordinate Clauses”, in A. Simpson (arg.) *Proceedings of WAFL 7*, MITWPL, Massachusetts, 17-31.
- Bhaskararao, P. & K.V. Subbarao, (arg.), 2004, *Non-nominative subjects*, John Benjamins, Amsterdam.
- Bossong, G., 1984, “Ergativity in Basque”, *Linguistics* 22:3, 341-392.

- Camino, I., 2012, “Ekialdeko euskararen iraganaz”, in I. Epelde & K. Zuazo (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina, ASJUren Gehigarriak* 69, UPV/EHU, Bilbo, 87-153.
- DeLancey, S., 2005, “The blue bird of ergativity”, in F. Qeixalos (arg.), *Ergativity in Amazonia III*, 1-15. CNRS, Paris.
- Dixon, R., 1979, “Ergativity”, *Language* 55, 59-138.
- Gavel, H. & G. Lacombe, 1937, *Grammaire basque. II. Le verbe*, Imprimerie de la Presse, Baiona.
- Gèze, L., 1873, *Eléments de grammaire basque. Dialecte souletin*, V<sup>re</sup> de Lamagnière, Baiona.
- Heath, J., 1972, “Genitivization in Northern Basque Complement Clauses”, *ASJU* 6, 46-66.
- Hualde, J.I., J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), 1995, *Towards a history of Basque language*, John Benjamins, Amsterdam.
- Inchauspe, E., 1858. *Le verbe basque*, V<sup>re</sup> de Lamagnière, Baiona.
- Knörr, H. et al., 1983, *Gabonetako ikuskizuna. Pedro Ignacio de Barrutia. Argitalpen kritikoa, itzulpena eta zenbait ikerlan*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz.
- Kornfilt, J., 1997, *Turkish*, Routledge, Londres.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*. Berrarg. Elkar, Donostia, 1991.
- Lakarra, J.A., 1983, “Oharrak zenbait arkaimoz”, *ASJU* 17, 41-68.
- , 1996, *Refranes y Sentencias: Ikerketa eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- , 2008, “Vida con / y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de *Urthubiako alhaba*”, *ASJU*, 42:1, 83-100.
- Lüders, U., 1998, *Syntax des Suletinischen*, LINCOM Europe, München.
- Mitxelena, K., 1987, *Palabras y textos*, UPV/EHU, Leioa.
- Miyagawa, S., 2008, “Genitive subjects in Altaic”, in C. Boeckx & S. Ulutas (arg.), *Proceedings of the 4<sup>th</sup> Workshop on Altaic Formal Linguistics (WAFL 4)*, MITWPL, Massachusetts, 181-198.
- Odriozola, J.C., 1990, *Axularren kasu-markadun adizkiak* (doktorego tesia), UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Orpustan, J.B., 1991, “Un trait dialectal en basque contemporain : le complément au génitif du nom verbal”, in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak [IKER 7]*, Euskaltzaindia, Bilbo, 535-557.
- Oyharçabal, B., 1992, “Structural case and inherent case marking: Ergaccusativity in Basque”, in J.A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic theory and basque syntax*, *ASJUren Gehigarriak* 27, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 309-342.
- Rebuschi, G., 1995, “Weak and strong genitive pronouns in northern Basque: A diachronic perspective”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 313-356.
- Trask, R.L., 1995, “On the history of the non-finite verb forms in Basque”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 207-234.
- , 1997, *The history of Basque*, Routledge, Londres.
- , 2002, “Ergativity and accusativity in Basque”, in K. Davidse & B. Lamiroy (arg.), *The Nominative & Accusative and their counterparts*, John Benjamins, Amsterdam, 265-284.
- Urgell, B., 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, in J.A. Lakarra & J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask*, *ASJU* 40:1-2, 921-948.

# Aurkibidea / Índice / Table of contents

Hitzaurrea / Prólogo / Preface .....	XVII
TXOSTENAK ETA KOMUNIKAZIOAK / PONENCIAS Y COMUNICACIONES / INVITED PAPERS AND COMMUNICATIONS	
El topónimo <i>Treviño</i> y la prevalencia de errores de historiografía lingüística <i>The place name Treviño and the prevalence of errors in linguistic historiography</i> JOSEBA ABAITUA ODRIozOLA (Universidad de Deusto) & MIKEL UNZUETA PORTILLA (Diputación Foral de Bizkaia) .....	3
Kolokazioak: <i>OEH</i> eta egungo erabilera <i>Collocations: The OEH and contemporary use</i> XABIER ALTZIBAR & JUAN CARLOS ODRIozOLA (UPV/EHU) .....	23
Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar <i>Some observations on the origin and composition of conjugated verbs in Basque</i> BORJA ARIZTIMUÑO LOPEZ (UPV/EHU) .....	41
Txitukarien neutralizazioa mendebaldeko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean (lehen hurbilketa) <i>Sibilant neutralisation in Western Basque between the 16th and 18th centuries (an initial approach)</i> UDANE ATUTXA (UPV/EHU) .....	61
Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia <i>On the history of Basque dialects: Labourdin and High Navarrese</i> IÑAKI CAMINO (UPV/EHU) .....	77

Aparición y evolución de esquemas de valencia no canónicos y ergatividad <i>The appearance and evolution of non-canonical valency pattern systems and ergativity</i>	
DENIS CREISSELS (Universidad de Lyon II) . . . . .	141
Euskal azentueren historiaz <i>On the history of the Basque accentual systems</i>	
ANDER EGURTZEGI & GORKA ELORDIETA (UPV/EHU) . . . . .	163
Basque spatial cases and the ergative-absolutive syncretism RICARDO ETXEPARE (IKER-UMR5478, CNRS) . . . . .	187
Las reglas del juego. Notas para una noción de ley morfológica <i>The rules of the game: Notes for a notion of morphological law</i>	
CARLOS GARCÍA CASTILLERO (UPV/EHU) . . . . .	213
Instrumentalaz gogoratzu, instrumentuaz haratago. Kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea <i>Recalling the instrumental, beyond the instrument: The nature of the case in typology and the evolution of Basque</i>	
IVÁN IGARTUA (UPV/EHU) & EKAITZ SANTAZILIA (UPNA/NUP & UPV/EHU)	227
Hasperenaren galera Iparraldeko euskaran <i>The loss of aspiration in Northern Basque</i>	
OROITZ JAUREGI (UPV/EHU) & IRANTZU EPELDE (IKER-UMR5478) . . . . .	245
Euskarazko egitura erresultatiboen diakronia <i>The diachrony of Basque resultative constructions</i>	
DOROTA KRAJEWSKA (UPV/EHU) . . . . .	263
Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipología holistikoa, kronología eta gramaticalizazioa <i>Towards a more profound reconstruction of prehistoric Basque: Canonical form, holistic typology, chronology and grammaticalisation</i>	
JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU) . . . . .	275
<i>Le Dauphin</i> itsasontziko euskarazko gutunak (1757): lehen hurbilketa <i>The letters in Basque from the ship Le Dauphin (1757): An initial approach</i>	
XABIER LAMIKIZ (UPV/EHU), MANUEL PADILLA (UPV/EHU & IKER-UMR 5478) & XARLES VIDEGAIN (UPPA & IKER-UMR5478) . . . . .	325
Euskaldunen jatorria eta berezitasun genetikoa eztabaidean <i>The debate on Basque origins and genetic singularity</i>	
SAIOA LÓPEZ, NESKUTS IZAGIRRE & SANTOS ALONSO (UPV/EHU) . . . . .	343
Ergatibilitate hautsiaz. Zergatik ote da orainaldi iraganaldi/irrealisa baino ergatiboagoa? <i>Split ergativity: Why is the present more ergative than the past/irrealis?</i>	
MIKEL MARTÍNEZ ARETA (UPV/EHU) . . . . .	353

Ohar bat [participioa + <i>joan/eraman, eroan</i> ] perifrasiareni diakroniari buruz <i>A note on the diachrony of the periphrasis [participle + joan 'go' / eraman, eroan 'bring']</i>	369
CÉLINE MOUNOLE (UPV/EHU) . . . . .	369
(Des)genitibizazioaren historiaz gehiago: genitibozko subjektu iragangaitzak (ISGEN) ekiäldeko euskaran <i>More on the history of (de)genitivization: Intransitive subjects genitive (ISGEN) in Eastern Basque</i>	383
MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU & IKER-UMR5478) . . . . .	383
Basque in the Becerro. Basque names and language in the <i>Becerro Galicano</i> of San Millán DAVID PETERSON (UPV/EHU) . . . . .	405
Euskararen dialektalizazioaren hastapenetarantz: konbergentzia eta diber-gentzia prozesuak Erdi Aroan <i>Towards the beginnings of Basque dialectization: The process of convergence and divergence in the Middle Ages</i> URTZI REGUERO UGARTE (UPV/EHU) . . . . .	431
Uribeko Corpus Onomastikoa (UCO) <i>The Onomastic Corpus of Uribe (UCO)</i> ANDER ROS CUBAS (Barakaldoko HEO) . . . . .	445
Aspectos del desarrollo de la lingüística histórica en los siglos XIX y XX <i>Aspects of the development of historical linguistics in the 19th and 20th centuries</i> PIERRE SWIGGERS (Universidad de Lovaina) . . . . .	467
Testuak kokatuz dialektología historikoan: egiteetatik metodologiarako <i>Situating texts in historical dialectology: From acts to methodology</i> KOLDO ULIBARRI ORUETA (UPV/EHU) . . . . .	511
Euskal Filología. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago? <i>Basque Philology: What do(n't) we know twenty-five years later on?</i> BLANCA URGELL (UPV/EHU) . . . . .	533
Vasco y gascón en el <i>Thesaurus Polyglottus</i> (1603) de Megiser <i>Basque and Gascon in the Thesaurus Polyglottus (1603) by Megiser</i> JOSU M. ZULAIKA HERNÁNDEZ (Eusko Ikaskuntza) . . . . .	571
Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta <i>Viva Jesús</i> testuaren jatorriaz <i>Notes on the old Basque of the Nervion Estuary and the origins of the Viva Jesús text</i> ENEKO ZULOAGA (UPV/EHU) . . . . .	593

KOLDO MITXELENAREN OBRA 25 URTE GEROAGO /  
 LA OBRA DE LUIS MICHELENA 25 AÑOS DESPUÉS /  
 KOLDO MITXELENA'S WORK 25 YEARS LATER

Sobre <i>Lenguas y Protolenguas</i> <i>About Lenguas y Protolenguas</i>	
JOAQUÍN GORROCHATEGUI (UPV/EHU) . . . . .	613
La lingüística ibérica antes y después de Luis Michelena <i>Iberian linguistics before and after Luis Michelena</i>	
JAVIER DE HOZ (Universidad Complutense) . . . . .	643
<i>Apellidos Vascos</i> eta Mitxelenaren onomastika lanak <i>Apellidos Vascos and Mitxelena's onomastic work</i>	
PATXI SALABERRI ZARATIEGI (UPNA/NUP & Euskaltzaindia) . . . . .	673
<i>Fonética histórica vasca</i> , hitz eraketaren morfonología eta neutralizazio erraldoiak <i>Fonética histórica vasca, word formation morphonology and massive neutralization</i>	
MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU) . . . . .	699
<i>Textos Arcaicos Vascos</i> 50 urte geroago <i>Textos Arcaicos Vascos fifty years later</i>	
GIDOR BILBAO (UPV/EHU) . . . . .	717
Euskal literaturaren historiaz Koldo Mitxelenak finkatu zuen eredu historiografikoa <i>The historiographic model established by Koldo Mitxelena on a history of Basque literature</i>	
JON CASENAVE (Université de Bordeaux 3 & IKER-UMR5478) . . . . .	729
Koldo Mitxelena, crítico de cine en euskera durante el franquismo <i>Koldo Mitxelena, film critic in Basque language during the Franco years</i>	
JOXEAN FERNÁNDEZ (Euskadiko Filmategia & Université de Nantes) . . . . .	743
<i>English Abstracts of the Articles</i> . . . . .	755